

ANAITASUNA

268. zenb.

1974.eko urtarrilaren 31koa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

Umeentzako jaialdia Bilbon



Jendearen eta, batez ere, umeen aldetik ba zegoen gogoia. Gabonetan jaialdia atzeratu behar izan zela eta, are* gogo biziagoa oraindik.

Urtarrilaren* 13an, horregatik, Santiago Apóstol-eko zinetokia mukururaino* beteta egon zen; eta hainbeste lagun izan ziren, barrura sartu ezinik gelditu zirenak. Bilboko eta Bizkai osoko ikastola gehienetako haurrak bertara joan ziren, umeen jaialdia ikustera.

Lehen partean Lexonako txistulari eta dantzari gaztetxoak agertu ziren, Andonik eta Luis Xabierrek haserako agurra eginez. Neskatoek uztaidantza polit bat erakutsi ziguten, guztion txalo beroak irabazirik. Ondoren, Kixki, Mixki eta Kaxkamelon euskaldun pailazo xebreak azaldu ziren, haur eta nagusien barreak bizteko.

Ondarroako Kresala taldeak bukaera egin zion lehen parte honi. Publikoaren eritziz, Ondarroako talde

jator hau zoragarri egon zen, musika eta kantu arloan saio askoren ondoko fruitu bikaina agertzen zuelarik.

Bigarren partean, Txikiak izeneko dantza taldeko mutilek makila ttikien jokoa dantzatu zuten; eta, ondoren, Aresti eta Izagirre neskato-mutikoen jota ekitaldi zoragarria. Guztiok, gaztettoenak bereziki, oso txalotuak izan ziren. Bigarrenik, Lupe kantari bermeotarra irten zen. Bere boz ezti, leun eta finaz lau kantu eskaini zizkigun gitarraz lagundurik. Hau ere xit txalotua.

Geroago, pailazoak agertu ziren berriro, osterara haur eta nagusien barreak sorteraziz. Bukatzeko, Balbino, Txilibrin eta Juan Karlos igan ziren agertokira, beren pandereta, alboka eta txaranbelekin jaialdiari akabu alai bat emateko.

Umeentzako jaialdia Bilbon

Azken orduan, guztiok joateko geundenean, Olentzaro jauna, pipa eta guzti, handik agertu zitzaigun, bidean gasolina gabe gelditu zela eta, lehenago ezin etorririk. Olentzarok gauza interesgarri asko esan zizkigun; esaterako,* bera ez zela ez bizkaitarra, ez gipuztza, ez nafarra, Euskal Herri osoko euskalduna baizik; Olentzero barik,* *Olentzaro* duela bere egiazko izena, eta paganoa ez, baina kristau jatorra dela. Ume guztiak "Olentzaro joan zaigu" kantatu zioten azkenean, eta beronek karamelu eta poster ugari banatu zituen haien artean.

Jaialdi eder hau Lexonako ikastolaren alde eratu zen, eratzaille Xabier Gereño eta presentatzaile X. Kintana zirelarik. Caja Laboral Popular-ek (Langileen Herri Kutxak), jaialdi honetarako, laguntasun eta erregalu ugari eskaini zuen, eskertzekoa berau.

Asmoa dago, datorren Gabonetan antzeko jaialdi bat egiteko. Segur gaude, aurtengo hau lekuko,* jendeak ongi etorria egingen diola harexeri ere. Hala biz.*

P. URTIAGA

dio, **deutso**
gaude, **gagoz**
geunden, **gengozen**
zaigu, **jaku**

ziguten, **euskuen**
zion, **eutson**
zioten, **eutsoen**
zizkigun, **euskuzan**

Euskara ikasteko laguntza

Urtarrilaren* 14ean irratsaio berri batekin hasi ginen Donostiako Herri Irratian. Irratsaio berri honen izena: EUSKARA IKASTEN.

Arratseko 9etan hasi eta 9ak eta laurdenean amaitzen da.

Honetara azalduko genuke saio honen mamia: Patxi Altunaren metodoz euskara ikasten ari direnentzako laguntza bat izan nahi luke EUSKARA IKASTEN izeneko irratsaio honek.

Guk ezagutzen ditugun euskara ikasten ari diren talderik gehienek, 8etatik 10ak arteko saio luzeak egiten dituzte. Horientzako laguntza atsegin bat izan nahi luke ordu laurdeneko saio honek; hain zuzen, beren lan luzean atsedeneditxo atsegin bat eskaini, bitartean ere euskara ikasten dutelarik.

Astelehenetik ostiralera* bitartean egiten dugu Donostiako Herri Irratian EUSKARA IKASTEN saioa, arratseko 9etan hasi eta 9ak eta laurdena bitartean.

Iñaki ZUBIZARRETA



Atera da

3. EUSKALDUNTZEN

**Behar beharrezkoa duzu,
zeure hizkuntza ikas eta sakontzeko.**

Liburu hau, lehen eta bigarren EUSKALDUNTZEN ikasi dutenentzat edo oinarrizko alfabetatze bat egin nahi dutenentzat egina da.

Liburu honek hamalau bat ikasgai ditu, eta bertan azaltzen dira esaldi subordinatu gehienak. Arras ongi azaltzen dira esaldiok: ikasleak, gehienik, gauza ezagunak aurkituko ditu; baina poliki poliki joko du zailago diren gauzetara. Honetaz gainera, irudiak, eskemak eta abar agertzen dira. Bigarren mailan bezala. Hiztegiaren klasifikatze bat ere egin dugu. Hitzak hizkuntzaren egiturak erabiltzeko behar ditugu, eta berek daramate egituren bizia. Hitz batzuk besteak baino garrantzitsuagoak direlarik, kontuan ukan dugu haien **noiztasun** eta **maiztasuna**.

Eska zuzenbide honetara:

«Euskalduntzen»
Ribera, 6
BILBAO-5

ANAITASUNA
BIZKAIA

HAMABOSTEROKOA

JABEA:

San Frantziskoren Hirugarren Ordenako Biltzarre Nagusia.

Batzarburu: Miguel Zapata (Goya, 25. Madrid-1)

BEHIN BEHINEKO ZUZENDARIA:

Imanol Berriatua, O.F.M.

ZUZENBIDEA:

Bulegoa: Pelota, 4-1.º Bilbao-5
Posta kaxa: 495

INPRIMATZAILE:

Imprenta AMADO - Mazarredo, 35. Bilbao-10
D. L.: BI-1.753 - 1967

ESTRATEGIA BERRIA?

Jean Kanapa, frantses Komunist Alderdian nazioarteko arazoen arduradun denak, joan den ekainean* esan zituèn hitzei bagagozkie, Mendebal Europako mugimendu komunistak bere taktika aldatu duela aitortu beharrean gaude.

«Europa kapitalistaren mailan, inperialismoaren aurkakq klase burrukaren batasuna sendotzeko orduak jo du...» Eta geroxeago: «Eskualde* honetako Alderdi Komunisten erabakiek ez diote nazioarteko mugimendu komunistaren batasunari kalterik egingo. Aitzitik,* berau sendotzera joko dute... EEEko gobernu kapitalistek ez dute gizarte aurrerakuntza eta demokraziaren Europa hori burutuko*...»

Beren italiar burkideek* ez bezala, joan den udaberriarte frantses komunistek ez dute EEE delakoa onhartu. Zerk bultzatu ote du frantses Komunist Alderdia aldakuntza honetara? Nagusiaren aginduak, noski. Ez zen alferrik «EEEren errealitateaz» mintzatu Brejnev jauna 1973.eko martxoan; Komekon delakoak ere orduantsu aldatu zuen EEErekiko bere jarrera.*

Italiar eta frantses komunisten «adiskidetze» harrigarri honen ondoren, eurrez* ugaldu dira, frantses, italiar, ingeles, skandinaviar eta mendebal alemaniar sozial-demokratekiko harremanak ere. Marchais, De Martino, Mi-terrand eta Berlinguer jaunen elkar ikustea lekuko.*

Baina sindikal mailan ukan ditu ondoriorik harrigarrienak aldakuntza, honek. CISL delakoari atergabe* heldu zaizkio Ekialdetik* mezuak,* ideologiaz gainteko elkartasunean iharduki dezan. Komunisten menean* dagoen FSMren Varnako azken Biltzarre Nagusian, Brejnevek bidaliriko mezuaren arauera,* dei biziak egin dira, anakronismo oroz* gaintetik sindikal banakuntza garaitzeko.

Baina ba da harrigarriagorik: herrjalde komunistetako sindikatoek, sobietarrak ere barne direla, Brusselako Federakuntzari atxikitze* gogoia agertu dute. Bestalde, aski ezaguna da, brusselar elkarte hau benetako sindikal-gintzatik urrunsko* dagoela, langreba* bera ere legez kanpo jarri baitu.

Hauk* hola, M. Séguy, CGTeko Idazkari* Nagusiaren hitzok ulerterrazago zaizkigu: «Ez gara dogmaren fanatiko, nahiz eta klase burrukarena izan...»

Egoera honen aurrez aurre, zenbait aitorkizun egin beharrean aurkitu da CISL; eta komunisten meriean dauden sindikal antolamenduekiko harremanak direla eta, zera esan du: «Sindikato aske eta demokratikoekin moko* moko dago hauen politika. Komunisten atzerri politika la-guntzearren ezarri nahi ditu FSMek CISLekiko loturok...»

Dena den, munduko komunistak mugimenduaren barnean nabaria* da biradura bat diplomazian, Europaren Ekialdekoan batik* bat.

Guiztiok geure buruari egiten diogun galdera, hau da: jakinaren gaineko taktika hutsa ala benetako estrategia berri bat da?

Lehendabiziko kasuan, Sobietar Estatuak sendotzera zuzenduriko maliobra baten aurrean aurkituko ginatete beste behin. Bigarrenean, berriz, zera esan beharko genuke, alegia,* norbaitzuek Jean Daniel-en esalditxo hura* haintzakotzat* hartu dutela: «Gaurgero* ez dago zertan esanik, burruka askatzailea eta sobietar aberria derrigoriki babestea bat direnik».

Dagoeneko,* norbait hasia da europar nazionalitate-entzat egun berriak aldarrikatzen.* Ni neu, goizegi delakoan nago. Aldakuntza honen garrantzia guttiesterik* ez dago; baina nork jarriko luke eskua sutan, burua lehengo lepotik ez duela segurtatzeko?

X. MENDIGUREN

dezan, daian
diogu, deusagu
diote, deutsoe
gaude, gagoz
zaizkigu, jakuz
zaizkio, jakoz

Klasiko izena eta maisulan maila inori zor baldin bazaio, Axularri zor zaio. (Zergatik?). Euskaraz egundaino egin den libururik famatueneren egile bera delako. Mugaz hango eta hemengoa izanik, bi Euskal Herrien artean zubi eta lokarri izateko guztiz aukerakoa dugulako. Prosa aberats, jori eta ongi trenpatua egiten aparteko maisua delako. Azal eta mamiz bikain bikaina eta trinkoa den obra baten egile delako. Obra hau, beste aldetik, neurri batean orijinala ere bada, gure lurraren fruitu jatorra, nahiz eta bestetatik karriatutako gaiak ere izan. Ezin agortuzko iturri eta harrobia dugu liburu hau. Ongi eman du hori guztiori aditzera Oxobik, Axularri eskaini dion bertso hartan:


Eskerrak, Axular!
Bihi, bazka, indar
egun eta bihar
badakigu nun har:
zu baitan!

Luis VILLASANTE («Gure Herria»)

GALERIA DEL LIBRO

José Angel de Zaballa

Liburudenda
Euskal liburuak



EUSKAL LIBURU AZOKA

EUSKARAZ EGITEN DA

Ercilla, 35 - Tel. 43 83 99 - B I L B O - 1 1

Axular-en

HIZTEGIA

Euskara - Español - Français

Español - Euskara
Français - Euskara

Aita Luis VILLASANTE

JAKIN
BIDE

Zer da Hiztegi hau?

- Euskal idazlerik handienaren gordailua: hitz, esaldi eta idazmoduak jasotzen ditu.
- Euskal hitzaren ondoan espainolezko eta frantsezko itzulpenak agertzen dira. Eta hitzen ondoren esaldiak datoz.
- Hitz eta esaldiok bi eratarata bila daitezke: euskaratik erdarara nahiz erdaratik euskarara.

Zertarako da Hiztegi hau?

- Axularrengandik euskararik jatorrena ikasteko, bera baita euskal prosaren sortzaile bikaina.
- Batez ere, hitzekin batean euskal joskera jatorrak jasotzeko.
- Idazle klasikoengandik hasirik, euskararen batasuna egin dezagun.

Norentzat da Hiztegi hau?

- Lehendabizi, irakasle guztientzat beharrezkoa da. Eta berdin Unibertsitateko irakasleentzat eta aldizkarietako idazleentzat.
- Ikastola, ikastetxe eta Goi Ikastetxeetan premia-koa da, kontsulta liburu bezala.
- Euskaltzale orori oso baliozko gertatuko zaio Hiztegi hau bere irakurraldietan.

Salneurriak

650 pezeta liburudendetan.
% 10 pezeta merkeago ANAITASUNAREN abonatuentzat.

Eskabideak

JAKIN, Aránzazu, Oñate, Guip. Tel. 781172.
JAKIN, Cuartel, 2, Tolosa, Guip. Tel. 651106.

Izena

Kalea Tel.

Herria Probintzia

Albistearen miztoa

Leitzan* papertegi handi bat dute. Diotenez, langile askori lana ematen diena, eta izerdia ateratzen. Lantegiak apartekoak baitira horretarako. Leitzako papertegia pizkor dator bere aurrerapideetan. Orain Motril-en* erosi du hango lantegien % 50a (beste % 50a INIren eskuetan geratzen dela). Leitzako langileek partiketa onik irabaziko dute (gezur hau egia balitz...); denen artean irabazitako kapitalarekin erosi dutenez, itxaropenik ba omen da (non?). Dena dela, gu pozik, euskal langileek sortutako kapitalak edonon holako harrera ona duela jakitean. Horrelaxe lagundu nahi omen da, kapital jator batek behar duen nazioartekotasuna. Eta langileak diru haien hegada* urdinari begira aho xabalik utzi omen dituzte.

* * *

(Hemen eman behar nizuen albistea ona denez, hurrengorako uzten dizuet, berri on guztiek batean kalte ere egin baitezakete).

* * *

Eta diru kontuekin gabiltzanez, ba dugu horretaz beste bat ere. Egunerokoetan zabaldu dute hau. Landazuriren «Arabako Historia» argitaratzera omen doaz. Pozteko da. Landazuri historigileak ba du alde on bat ere: liburu lodiak idatzi zituen, eta, erdaraz idatziak izanik, eurrez* zabalduko dira. Abantail guztiokin liburu eder, lodikote eta merkeak izango omen ziren. Baina ikusi ei* da geroxeago, jendea prest dagoela garestiagoak pagatzeko ere; eta abantail guzti guztiez probetxu onik ateratzearen,* puntutxo bakar bat aldatu omen da haserako* asmo hartan. Liburuak, eder, lodikote eta garestiak izango dira. (Hori da zuhurtzia!).

* * *

Rumaniako politika gidarietako baten berriak heldu zaizkigu etxera gaur. Politikari hori ez nuen ezagutzen; baina ikusten da, esatekorik ba duela.

Niculescu-Mizil Rumaniako Edukazio Ministrua da, eta beste egitekoak ere ba ditu. Mutila da gure Niculescu-Mizil Ministrua. «Proletal nazioartekotasuna eta independentzia nazionala» arazoari heldu dio oraingoan Ministruak.

Rumaniar honek ba daki zerbait: «Ez dut uste, bi printzipioon artean kontraesanik dagoenik». Horixe uste dugu guk ere (beraz, pentsamendu ministragarria da gure hau ere). Eta dena osatuz, hola esan du: «Arazo honetaz rumaniar pentsaera hauxe da: politika, ekonomi, gizarte eta kultur egitekoak herri barnean konpondu behar ditugu, geuk daduzkagun beharizanen* arbera». Horretan ere bat gara. Printzipio horrekin osatu behar omen da benetak nazioartekotasun jatorra. Eta kazetariren batek galdetu omen dio: Hori ote da, gero, mundu sozialistak ontzat ematen duen internazionalismoaren interpretazio bakarra? «Bai, ez dugu besterik ezagutzen» erantzun du Niculescu-Mizil jaunak. Nork pagatuko lioke jaun Ministruari bidaiatto bat Euskal Herrira, gehiagorik jakitea ere komeni baitzazio.

JOANES GOIA

dezakete, **dalkee**
die, **deutse**
dio, **deutso**
dizuet, **deutsuet**
lioke, **leuskio**

nizuen, **neutsuen**
zaie, **jake**
zaio, **jako**
zaizkigu, **jakuz**

Neure lantokitik

UMEEN JAIALDIA BILBON

«Santiago Apóstol» ikastetxeko teatroan, ba ziren nonbait 1.400 pertsona inguru. Bilboko ikastoletako ume, guraso eta irakasleak. Jaialdi zoragarria benetan! Eta gaur hark ematen dit gaia, ANAITASUNAK eskaintzen didan horrialde hau betetzeko, zeren* han jasotako espe-rientzia interes haundikoa baita Euskal Herri osorako.

1.400 PERTSONA

1.400 lagun bildu zirela esan dugu, eta guztiak ikasto- laren inguruan dabilzanak. Zenbat dira hauk* Euskal He- rri osoan? Milaka eta milaka. Eta zer eskaintzen zaie atsegingarri bezala?

Gazteentzat edozenbat* jaialdi antolatzen dira Eus- kal Herri osoan (eta gehiago izango lirateke, hainbeste debekurik ez balego). Baina umeentzat eta haien gura- soentzat, deusik* ez. Horregatik, gure umeak erdal tele- bisio eta tebeo* eta liburuen menpean daude. Hutsune hau betetzeko garaia da.

PAILAZOAK

Lehenengo batez esan nuen, Bilboko ume euskaldunek orain ikusi dutela lehen aldiz, pailazo* bat euskaraz min- tzatzen. Edozein hizkuntzarako umeek aspalditik zutena, euskaldunek ez zuten. Atzerapen honek lotsaz bete be- har gaitu, eta lanera bultzatu.

Beranduxe bada ere, Kixki, Mixki eta Kaxkamelon do- nostiarrak oso ongi aritu ziren. Edonon presentatzeko gai dira. Dei itzazue beldurrik gabe. Haien zuzenbidea: Iña- ki Ansorena. Plaza 18 de Julio, 13-2.º San Sebastián.

BERMEOKO LUPE

Bere 15 urterekin, ikastolatik irten* berri den neska- tila ematen du; baina, ene ustez, umeetaz dugun axola- gabetasunaren azalpenik bikainena eman zigun: adine- koen* kantuekin etorri zitzaigun. Euskal kantari guztiei, eta batez ere Luperi, umeak kontuan har litzaten eskatu- ko nieke. Haur kantikak presta litzaten. Eta jaialdien anto- latzaileei eskatu nahi diet, umeentzako jaialdiak antola ditzaten. Lupe, bere gaztetasunak ematen dion indarrare- kin, umeen idolo bihurtu daiteke.

ONDARROAKO «KRESALA» TALDEA

68 neska-mutiko, Irune Argoitiaren zuzendaritzapean, txistu, kitarra eta bandurriekin. Sekulako «Oh, mammy blue» kantatu ziguten. Euskaraz, noski. Mutiko solista hura* edonora eramatekoa da. Talde honek bildu zituèn txaloak, segur asko, Ondarroatik ere entzun ziren. Umeen artean musika zaletasuna zabaltzeko, oso komenigarria litzateke, talde hau edo honelakoren bat jaialdietara era- matea. Zuzenbidea: Irune Argoitia. Velarde, 47 - Ondá- rroa, Vizcaya.

«LANGILEEN HERRI KUTXA»

Jaialdi honetarako propaganda osoa «Caja Laboral Popular» delakoak ordaindu du, eta umeen artean 1.000 karamelo boltsa zabaldu zuen. Honelako portaerarik ez dugu beste Kutxetan ikusi, eta aipatzea merezi duela us- te ukan* dut. Jaialdien antolatzaileei esan nahi diet, eta batez ere ikastoletakoei, hemen aurkitu dugun laguntza ez dugula beste inon ediren,* eta guri eskaini digutena, segur asko, beste edonori ere emango duketela.*

OLENTZARO

Jaialdia amaitzerakoan, eta bere adiskide mina duen Xabier Kintanaren deiarri erantzunez, Olentzaro etorri zi- tzaigun, haurren eta adinekoen pozerako. Olentzaro, ANAI- TASUNAK zabalduko poster ederrean bezala jantzirik zegoen, oso dotore eta alai, hainbeste lagunen artean. Mikrofonotik, edozein tokitara joateko prest zegoela esan zuen. Ea, bada, laster lortzen dugun Olentzaro standard bat Euskal Herri osorako!

PRESENTATZAILEAK

Haurren jaialdietarako presentatzaile egokiak behar ditugu. Aipatzen ari naizen jaialdi honetan, ezin hobeto ihardun zuen Xabier Kintanak, umeentzat aparteko dohai- nak baititu. Irune Argoitia ere aipatu behar dugu, oso on- gi presentatu baitzuen «Kresala» taldea. Mikrofonotik be- rebiziko* graziaz berba egin zuen.

LEXONAKO IKASTOLA

Ikastola honetakoak izan ziren jaialdiaren antolatzaile- ak. Bezperan gurasoen batzarre nagusia egin zuten, koo- pertiba bezala Langileen Herri Kutxarekiko elkartasuna erabakitzeke. Aho batez onhartu zuten elkartze hau. Ge- ro, Kataluniara joan diren bost irakasleak eta lehendakari ordezkoak eta Alberto López ikastola berriaren arkitek- tuak hitz egin ziguten, diapositiben bidez eta zernahi in- formazioz, han ikusitakoaren berri emanaz. Llerdako* «es- cola català»k eta Lexonako ikastolak irakasleen truke egingo dute, bilinguismoaren praktiká* eta sistema peda- gogikoak aztertzeke. Ene ustez, geure kooperatibakoen- tzat egindako mahai biribil hau beste ikastolei ere eskai- ni behar genieke, oso interesgarria izan baitzen. Adibidez, haurren urtebetetze egunetan, ikastolara karameloak era- man beharrean, Llerdan joko pedagogiko bat erosten* du- te. Honela lortu dute material aberats bat.

Eta orain, amaitzeko, idatzi dudanaren laburpen gisa,* hau esan nahi dizuet: Urte berri bat hasi dugu. Beraz, erabaki berri bat hartzeko garaia da. Erabaki berriori, euskaldun umeak haintzat hartzea izan dadila.

Xabier GEREÑO

diet, **deutset**
digute, **deuskue**
dio, **deutso**
dit, **deust**
ditzaten, **daiezan**
dizuet, **deutsuet**
genieke, **geunskioe**

itzazue, **eizuez**
litzaten, **leiezan**
nieke, **neuskioe**
zaie, **jake**
zigun, **euskun**
ziguten, **euskuen**
zitzaigun, **jakun**



MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas-
resnak, Igeritekoak, Uretako Jan-
tziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI
Muelle de Uribitarte, 15 BILBO - 1

Gure Munduko Albisteak

Liburu berriak

«...laino guzien azpitik...», «...eta sasi guztien gaineratik...»: J. A. Arze eta J. L. Zumeta

Goiko izen sorgindarrez, argitara eman dira azken Gabonetan Joxe Anton Arze «Harzabal» en poesi liburu biok, Jose Luis Zumetaren irudiez apainduak.

Jadanik ohiturik gaduzka Joxe Antonek, honelako obra «ohi ez bezalakoak» eskaintzera. Lehen **Isturitzetik Tolosan** barru ikusliburu xelebrea izan zen, presentazio eta orijinaltasun aldetik ezin ederragoa. Oraingoan, hura* bezain harrigarri ez badira ere, edizio ongi ilustratu bat agertu digu, poemei osterantzeko* distira eta grazia estetikoak ematen diena.

Harzabal estheta bat dela agerian dago; bai musika, bai pintura eta bai poesia elkarrekin lotzen ahalegintzen den artista bat. Lortu ote duen esateko, ez gara nor sentitzen. Honetan irakurleak duke* bere zeresana. Hala ere, ezin genezake horrelako ahalegin bat txalotu gabe utz.

Oharra: Azken orduan jakin dugunez, J. A. Arzeren liburu hau poliziak bahitua* izan da, bai liburudendetan eta bai egi-leari zuzenik eskatu ziotenen etxe guztietan ere.

II. Euskal Anthropolgi Asteko lanak argitaratu dira

Egunotan La Gran Enciclopedia Vasca editorialak, Deustuan 1972. urtean egindako hitzaldi eta estudioak publikatu ditu. Haietan linguistika, literatura, arkheologia, soziologia, historia, legeak, ethnographia eta antzeko gaiak buruzko azterlan baliosak agertzen dira.

Guztien artean, bereziki, oso interesgarriak dira, aita Urrutia jesuitak, Estatuak Espainiako hizkuntza ezofizialekin erabilitako lege eta erabakietan bilduriko dokumentazioa. Beronetan, 1936.etik hona gauzak, funtsean,* zein guti aldatu diren ikus dezakegu. Holako lege eta izpirituek dirauten artean, oso gutti lortuko dugu euskararen salbaziorako.

Espainiako Gobernu Berria

Luis Carrero Blanco presidente jaunaren lekuan, horretarako legearen arauera,* Carlos Arias Navarro jauna izan da jarria presidentetzat. Arias Navarrok, aurreko kabineteko zortzi ministro izan ezik, beste guztiak eraberritu egin ditu, izen berriak jarritz.

Gobernu honetan, gehienbat errepresentaturik dagoen taldea, falangearena omen da; eta 1939.etik hauxe da gobernuan euskal probintzietako inor ez duen lehenbiziko kabinetea. Arias Navarro jaunak espainolei politikan partaidetasun handiago bat prometatutako bere gobernuan. Ea, ba,* horrela den.

Arimak 21 grammo pisatzen omen du

Baj, horrela dio Nils Jacobson-ek, 36 urtetako suediar* irakasle batek, oraintsu argitaratu duen liburuan. Obra horretan, «Liv efter döden?» (= Hil ondoko bizitarik ote?), giza arimak 21 grammo pisatzen duela dio, haur baten arima eta nagusi batena berdin berdina izanik. Berak dioenez, pertsona bat hil aurrean eta hil ondoan pisatuz gero, 21 grammotako diferentzia bat dago, «arimaren pisua», alegia.*

Siqueiros hil da

David Alfaro Siqueiros mexikar pintatzaile famatua hil berri zaigu urtarrilean.* Heriotza honekin munduak ohi ez be-



zalako artista bat galdu du, artean eta politikan erabat* konprometaturik egoten jakin zuen intelektual ezkertiar bat, alegia.*

Olentzaro, eta ez Olentzero

Begien bistan dago, gutaz diotena diotela, euskaldunon jokatubiderik maiteena anarkismoa dela. Nola bil ditzakegu geure indarrak zerbaiten alde, alde zurretik zerbait horren izenaz akordio batetara heltzen ez bagara? Euskara, euskera ala euzkera? Euskal Herria, Euskalerrria, Euzkalerrria, Euzkelerrria, Euskadi ala Euzkadi? Burruka ala borroka? Olentzaro ala Olentzero?

Diodan* alde zurretik, nerau ere maiz* izan naizela bigarren lekuko izen horien aldeko; baina alde bateko eta beste arrazoiak entzun ondoren, azkenean eritzi z aldatu naiz.

Eta Olentzaroz ari garelarik, ihaz, oker ez banago, Imanol Laspiur eta Bittor Kapanaga adiskideek ZERUKO ARGIAN, Olentzaro (eta ez Olentzero) izenaren alde dauden arrazoiak erakutsi zizkiguten. Funtsean* R. M. Azkueren eritzi zetan oinarritzen ziren, hots,* bukaerazko -tzaro hori ez dela -zaro «haro, sasoi» besterik, zahartzaro edo haurtzaro bezalaxe. Antzeko aburuak* agertu dizkigute oraintsu, Eguberrietan, P. Lafitte eta aita Joxemiel Barandiaran euskaltzainek. Lehenaren ustez, gainera, Olentzaro Noel-zaro izenaren metatesi bat besterik ez da. Ba liteke.

Horik* horrela, ba dirudi, forma hori hobetsi* beharko genukeela guztiok, ikastolako haurrentzako behialako* liburuxkan oso ongi ezarri zuten. Ez baitatorkio batere mesederik Olentzarori holako izen-mizenetatik, eta bai nahasterik franko.

Dena dela, izen kontuok gorabehera,* ba dirudi, euskaldunon artean errege magoen lekuan Olentzaro ezartzeko ideia aurrerantz doala; eta G. Trintxerpek ZERUKO ARGIAN egindako artikuluak eta AGUREko editorialistarenak helburu berbera jotzen dutela ematen* du. Bejondigula* guztioi. Agian* ez gara 1974. urtean hain gaizki sartu.

Jose Ramon Etxebarria alaba bat

Abenduaren 16, Lorea Akaiturri andreak, Jose Ramon Etxebarria idazkidearen emazteak, alaba polit bat ekarri zuen mundura. Beren lehenbiziko ume honi Alaitz izena ipini diote. Gure zorionik bihotzetikoenak guraso gazte berrioi.

Bilboko nahasketak

Urtarrilaren 16an bonba bi jarri ziren Bilbon. Bata Deustuko Unibertsitatean, bertako makina konputatzaile bat birrinduz. Kalteak 25 milioitakoak izan omen ziren. Bestea Sarrikon, Zientzia Ekonomikoetako Fakultatean jarri zen, garrantzi gutiko galerak eginik. Egun berean, irakastegi honetako unibertsitari talde batek dekanoaren langelako atea bortxatu zuen. Poliziak zenbait estudiante atxilotu* zituen.

Euskal komiki bat

Nola edo hala deitu egin behar; eta ingelesezko comic hitza, k letraz bukaturik, euskaraz deklinatzeko zaila zaigunez gero, komiki bilakatu dugu. Baina izen kontuok alde batera utzirik, albistea hau da: Iker, Bilboko aztertze taldea jo eta ke ari dela komiki bat prestatzen euskaraz, antza* denez ANAITA-SUNAn zatika argitaratzeko asmoz. Komiki hau orijinala, euskal pertsonaiez osatua eta Euskal geographian gertatua omen da. Agian* laster ikusiko dugu.

ETAkoen gorabeherak Frantzian

Espainiako gobernuaren eskariei erantzunez, frantses poliziak, Ipar Euskal Herrian ihes eginik bizi diren euskaldun babestu politikoak banan banan deitu ukan ditu itaunketak* egitako, ondoren, ordea, libre utzirik.

Frantziaren iparraldera bizitzera joateko aginduak, bestetik, ez dirudi behar bezala betetzen direnik, ETAkoak Baionan, Donibane Lohitzunen eta Hendaian, nabariro* gainera, behin eta berriz ikusiak izan dira eta.

Guy Petit-ek, Miarritzeko alkateak, ETAK Carrero Blanco almirantea hil zuenetik, bere dimisioa presentatu du Anai Artea elkartetik. Monsieur Guy Petit jaunak deklaratu duenez, Ipar Euskal Herriko bizilagunik gehienak ez dira euskaldunak eta ez daude konforme ETAko separatistekin.

Miarritzeko kaleetan, Guy Petit jaunaren kontra, zenbait esaldi pintatu dira. Era berean, HERRIA Baionar astekarian Gehexan Poattok ziri bertso batzuk* ezarri dizkio Petit jaunari: «Ez girela gu euskaldunak? Qui l'a dit? Guy Petit». Hala ere, frantses abertzaleek zenbait pintada egin omen dituzte Ipar Euskal Herriko karriketan,* esaterako, «Vive la France! Non au séparatisme! Vive le Pays-Basque!», Guy Petit jaunaren fabore irtenik.

Baionako kaleetan urtarrilak* 15, eta Tolosan urtarrilaren 16an, manifestazio batzuk egon dira frantses gobernuaren aurka. Strasburgon, bestetik, zenbait lagunek espainol kontsularen etxea bortxatu zuten, poliziaren laguntza behar izanez.

Euskal Herriko pasaporteen berrikusi beharra

Poliziak erabaki duenez, urtarrilaren 20tik aurrera Espainiako euskal probintzietako lagun guztien pasaporteak balio gabe gelditzen dira, komisaldegietara, bertan berrikusiak izateko, eramaten ez badira.

45 urte arteko pertsona guztiei, bestetik, Frantziara joan baino lehen, beren bidaiaren zergatikoa galdetuko zaie.

Antza denetik, neurriok, ETAK dituen pasaporte ohostu* eta faltsifikatuak kontrolatzeko omen dira.

Aleksandr Soljenitsyn-en azken obra

Aleksandr Soljenitsyn-en azken obra, Sobietar Batasunean dagoen askatasunik eza salatzen duena, egunotan izan da presentatua Parisen. Dakikegunez,* Soljenitsyn idazle errusiar hau 1970.ean Nobel Sariaz hornitua izan zen, eta harez gero gogorki tratatua izan da Errusian.



Toki izenak aldatzen ari

Bai, hau da zenbait taldek eta kanpotar entpresak gure Herrian obratzen ari duten lan traketsa. Ezaguna bezain penagarria dugu, orain arte euskal izenen orthographian eta itxuran Estatuko funtzionarioek egin digutena. Hortxe ditugu, kasu,* Echevarria, Vedia, Recalde, Vizcaya, San Sebastián, e.a.

Araban, lurren elkartasuna dela eta, euskal toponymia erabat* baztertu eta ezereztera doa herri askotan, eta Errekasolo, Iturburu edo Bidondo gabe, 1.^a parcela, 2.^a parcela, 3.^a parcela ipintzen dira.

Are* kaltegarriagoa da, bestetik, Euskal Herriaren bihotz bihotzean eraikitzen diren etxetalde eta egoitzei gaztelaniatzko izena ezartzea. Hori Herriari, inguruari eta Historiari irain argi bat egitea besterik ez da. Hortxe dugu Bizkaian, urrunago joan jabe, Plentziako «El Abanico de Plencia», Gernikako «Vega de Guernica», Algortako «Urbanización los Pinos» edo Bilbo Zaharreko «El Casco Viejo».

Gauzak horrela segituz gero, Euskal Herria laster gaztelaniatzaturik agertuko zaigu guztiz.

Bretoiak eta kortsoak, problema Frantzian

Le Monde aldizkariak (73-XII-27) dakarrenez, Britainiako Askatasunerako Fronteak oraintsu komunikatu elkartu bat agertu du ETArekin, bere jarrera sozialista eta iraultzalea proposatuz. Dirudienez, bretoi erakunde* hau, ETArekin bezalako barnegitura* batez moldatu da berriki,* burruka harmatuari inoiz baino garrantzi handiagoa emanez.

Kortsikan* ere, Mediterraneoko irla honen askatasunaren aldeko fronte klandestino bat eratu da, bertako hizkuntza, ohitura eta ekonomian libertatea terrorismoaren bide gogorretik erdietsi* nahiz.

Hau aurrera segituz gero, frantses agintariak, Espainiako komentaristek ongi darakuskigutenez,* problema gogorrak ukamen dituzkete* beste separatista horiengatik, bide gaiztotik abiatzen hasi direnez gero. Horra hor, bada, frantsesen babes politikoari egindako ordain zitala!

ARMENDARITZ

daude, dagoz
dezakegu, daikegu
die, deutse
digu, deusku
digute, deuskue
diote, deutsoe
ditzakegu, daikeguz
dizkigute, deuskuez
dizkio, deutsoz
gaduzka (gauzka), gaukaz
genezake, geinke
zaie, jake
zaigu, jaku
zioten, eutsoen
zizkiguten, euskuezan

Euskal Theatro Berriaren bila (1)

Gure theatroak NHI* izan behar duela adierazi nahi da hemen, eta, nola hiru berezitasun hauk harremanez elkar loturik baitaude, batak bestea eskatzen duela. Eragin haundiena inon bilatzekotan, N-ren eragintzan bilatu beharko litzateke, zeren* eta, kontzeptu honi guk ematen diogun zentzuan, beste biak bere besapean baitakartzatza, bere baitan, bere barrenean.

NHI-REN N ELEMENTUA

Bereizgarri hau ukanen* duten theatrozko lanek, ez-pairik gabe eta derrigorrez,* euskaraz eginak beharko dute izan. Munduaren zabalera guztian hala gertatu eta gertatzen da; eta, beraz, guretzat ez da NHI, euskaraz ez, eta erderetan bai, jokatzeko den theatroa. Modu berean, ez da Puerto Ricokoa ingelesez egin dagoena, gaztelaniaz egin dagoena baizik. Delako «La Muestra Portorriqueña»-ren informatzaileak zioenez: «En todo caso (...) la defensa del castellano, el hecho de que siga siendo el idioma del país —muchos saben inglés, y fingen no saberlo para evitar confusiones políticas— es esgrimido con frecuencia como prueba de afirmación nacional. Francisco Arrivi, dramaturgo y autor de un libro titulado **Conciencia portorriqueña del teatro contemporáneo**, fija en los primeros años cuarenta la puesta en marcha del proceso de creación de un teatro profundamente nacional».

Baina gure artean egin den theatroan, zoritxarrez, euskaraz eginez sortzen zèn komunikazioa (eta theatro mota honetan, esan berri dugunez, komunikazioa beti hortikan hasten da) horretantxe bertontxe amaitzen zen, eta da oraindik.

Goguratzen naiz nola, orain dela hamar bat urte, gure herriskan theatro saio bat ematekoa zen. Ene anaia etorri zitzaidan, «hi, hi, gaur komeriak zitiagu, goazen azkar azkar» oihukatuz. Hala, hasera* baino ordu pare bat lehenago han ginen, udaletxeko* aretoan* jezarrita,* ilusio haundi haundi batekin. Halako batean, hor non azaltzen diren pertsonaiak beren tramankuluekin: dentist aulki bat, baserritar jantziak, eta bata zuri bat. Alikateak ere, nola ez, hantxe zeuden. Argudioa:* baserritar baten gorabeherak, hagina atera behar zuen egun malurusean.* Hasi zen funtzioa, denok oso pozik geunden. Eta bost minutu ez ziratekeen* pasatu, zart argia joan zenean, areto osoa ilunpe gorritan utzirik. Eta han gelditu ginen, komeriarik gabe.

Harez gero, argia ez da etorri.

Zeren,* gure ustez, holako theatroak ez baitu balio, ez baitigu zerbitzurik egiten, eta, hain zuzen, ez baita N-bereizgarri.

a) Esthetikaren aldetik, ba dugu theatro suerte bat, forma naturalistak edo antzeko forma erreazionarioak erabiltzen dituen. Antzoki* batean sarturik, jokalekua-
ren gainean, armarioak, mahaiak, Murillo edo holako baten baten koadru edo eta erretratuak, gurutzefikak eta abar ikusten ditudanean, pentsatzen jartzen naiz pentsa-

tzen (denboraren koordinadetan gaindi* korrika bat egin ez edo) XIX. mendean ez ote nagoen. Baina ez: segituan ateratzen da ohizko neskamea telebisio aparatuari hautsak kentzen. Telebisioa! Eskerrak! XX. mendean oraindik!

Eta inork ez beza gure berrizaletasuna arrazoinezkoa ez denik pentsa; zeren* naturalismoarekin jokatzeko due-
nak pentsatzerik ez baitaduka inguruko gizartean eragintzarik lortzea, naturalismo hori ez baita izanen aski bo-
teretsu gizartea transformatzeko edo eta iruartzeko. Eta N bereizgarriak zera eskatzen dio gure lanari: jendearen-
gana (eta jende garrantzitsuengana, gainera, gazteengana eta abar) ondo irixtea,* hauk* biltzea, eta, hauen kontzientzia ugalduz (zer zen, bada, Marxek berak literaturari eskatzen ziona, kontzientziaren ugaltzea baino?), eus-
kal gizartearen aldaketan eta higiduran* parte hartzea, eta transformazio horren eragile izatea.

Horregatik, NHI theatroaren esthetika mailak ahalik eta goren egon behar du; eta, horretarako, bideak jarri behar dira.

b) Gaiaren aldetik, beste horrenbeste gertatzen da. Ijitoak eta beste gai barreragileak (!) alde batera utzirik, beste klase hauetakoak ikusi ahal ukan* ditugu: apez-
nak eta homosexualenak, gai horik* berberok arazo na-
gusi nagusizat emanez, hots,* gizarte horren arazo fun-
tsezkoenak agertzeko erabili gabe (Genet-ek homosexua-
litatea eta abar inperialismoa salatzeke erabiltzen omen du), guraso eta semeen arteko problemak... eta horik de-
nok, sentimentalismokeriaz kutsatuak, fededun (edo su-
perfededun) batzuegandik sortuak, kalitatez urriak.

Ba dira, noski, gai aukeraketaren aldetik behintzat, as-
mo aberatsagoak dituzten lan batzuk: Matalasen bizitza-
renak, Etxahunenak...; baina gutti, oso gutti.

Euskal gizarteengan eman diren burrukak eta gertatu
diren aldaketak, nagusitu diren kezkek, hilak edo eta es-
petxeratuak izan diren gizon eta emakumeak, gure pozak,
gure sufrimenduak, hitz batez esanik, gure herriaren bi-
zitzat: hori ez da nabarmendu gure theatro tokietan, ez
da sentitu ere. Horregatik esan genezake, orain arteko
theatrogile eta theatro jende oro* lainoetan ibili dela.
Arrosa koloreko lainoetan, segur asko.

Eta hau esan nahi dugu: N elementua bereganatzen
duen theatroak ez du gizartearekiko etendura hori on-
hartuko, eta, areago,* gizarte horren kontraesan latzenei
erantzuten saiatuko da, theatro engaiatu* eta konpro-
metatu bat bihurturik. Beste hitzez adieraziz: euskal kul-
turaren osagile (eta eragile, hain zuzen) izanen da.

Eta alde honetatik, gai erdi metaphysiko eta eskasak
baztertzeko hartu den bide bakarra, itzulpenen bidea izan
da, Espainiako «belaunaldi* errealista» deituaren obrak
—Alfonso Sastre eta Lauro Olmorenak bereziki— euska-
ratuz.

Guretzat, itzulpenak bigarren mailako soluzioak dira.

c) N berezitasuna falta zaio, halaber,* Euskal Herri osorako egin ez dagoen teatro lanari. Egia da bai, hainbeste urtetako agonià dela medio, xit zaila dela, Nafarroako Erriberan, Arabako Errioxan eta diaspora dei genitzakeen beste toki guztietan, guk esaten dugun bezalako teatro bat egitea. Zaila da, bai! Baina orainokoa* gure artean egin denak, posibilitate hori planteatu ere ez du egin; antza,* ez zaio bururatu ere holakorik.

NHI-ren barrenean, adibidez, Erronkariko Espartza herrixkan nolako ekinaldiak bota beharko liratekeen aztertuko litzateke: ginola erabil ala ez; mimoa edo eta ume kantak; pastoralak (Ordizian ikusi ahal ukan nuèn pastoral batean, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez eginik zeudèn liburuxka batzuez baliaturik, jendeak ongi asko ihardun zuen, hiru ordu baino gehiago, Zuberoako euskara ulergaitzenez ematen zèn ekinaldi hura ikusten) edo beste edozein teatro teknika.

NHI-ren barrenean, Gipuzkoa, Bizkai, Nafarroa eta Arabako toki kontzientziatuak ezezik,* diaspora ere hartuko da buruan: Iparralde, Arabako Hegoldea, Logroño eta Nafarroako Erribera alde; bai eta Ameriketako eta bestetan dauden euskaldunak ere. Toki bakoitzean, zein komekia egin eta nola joka aztertuko da.

d) Garai guztietan eta mundu osoan, teatro lanetan ibili direnen kezka bat, adierazpide eta komunikabide egokienak aurkitzea izan da. Nola bota egiak? Nola adieraz jendeari, bene* benetan esan nahi dioguna? Hor datza* kakoa; eta bide honetan, nahi adina* ahalegin topa liteke: Stanislavsky, Brecht, Roy Hart, Grotowsky, Artaud, happening azken aldikoak soilik aipatzeko.

Bada, guri iruditzen zaigunez, Euskal Herrian orain arte eman den teatroak, alde batetik, ez die batere jaramonik* egin Europa eta mundu osoan nagusitu diren teatro teoria horiei (kalitatea lortzeko posibilitateak urrituz, jakina); eta bestetik, ez ditu gure tradizio biziduna, gure kulturak sortu edo behintzat gorde dituen adierazpide eta komunikabideak haintzat* hartu, ez ditu kontuan eduki.

Tradizio biziduna, guretzat, historian zehar funtzionalitate desberdinak eduki ditzakeen hura* da (eta teatroa bera, funtzionalitate desberdinak eduki ditzakeen estruktura bat da: adibidez, berdin balio du erlijio erritueterako, eta berdin politika egiteko); eta, horregatik, tradizio «onak» bezala jotzen ditugu bertsolaritza, pastoralak, eta abar. Japonen, ba dugu tradizio bizidun honen adierazle ezin hobea: NO teatroa.

Gauzak honela, NHI-k bi zutabetan* oinharriturik erai-kiko du bere etxea, hots, bere teatro lengoia:*

— munduan eman diren teoriak aztertuz, konprenituz, eta, komenigarri iruditzen bada, gure kasurako aplikatuz.

— euskal kulturaren erantzunak (gai honi buruz, noski) aztertuz eta erabiliz.

Eta honela jokatzuz, Peter Brook, Alfonso Sastre eta beste zenbait teorikorekin ados jokatzuz dugula uste dugu.

e) Esandako guztiaren laburpen edo sintesi gisa,* zera utzi nahi dugu garbi: Euskal Herria egiten ari den zerbait denez gero, (eta oinaze handirekin gainera, itzalpean eraikitzen ari baita gure herria, Amurizak dioenez), N-bereizgarridun teatroak ekintza horretan parte hartu nahi du, artearen aldetik eta gure eta haurzoko herrieta-

ko kulturek emandako lan tresna guztiekin. Gure teatroa, beraz, euskal ekintzaren berotasunean zuzpertz* eta biziko da, kontzientzia berri eta azkarrago bat sortzen lagunduz. Horrela bakarrik justifikatzen baikara Euskal Herrian, orain eta hemen.

BERNARDO ATXAGA

beza, bei
daude, dagoz
die, deutse
digu, deusku
dio, deusto
diogu, deustagu
ditzake, daikez
genezake, geinke
genitzake, geinkez
geunden, gengozen
zaigu, jaku
zaio, jako
zeuden, egozen
zioen, inoan, esaten zuen
zion, eutson
zitiagu, ditugu
zitzaidan, jatan

Hizkuntzak hitz egiteko eginak dira. Ezpainetan erabiliak izateko. Hori gabe ez dira deus. Euskara bizia indartu behar dugu, beraz. Gure eguneroko bizitza arruntan eta harreman guztietan cuskarari zor zaion tokia emateko, lan egin.

Euskara mintzatua indartzea, hori da lehen. Hori da, hobeki esateko, lehena, erdia eta azkena: hori da dena. Sebero Altube euskaltzaina, Pabeko desterruan, anitz urte bota zuena, beti ari zen hauxe errepikatzen: hizkuntza mintzatuaren lehentasuna, alegia; eta, hau galdua balitz, dena galdua legokeela. Bego hau garbi.

Luis VILLASANTE («Gure Herria»)

BIZKAIKO AURREZKI KUTXA

Erakunde honek,
Bilbon eta Probintzia osoan,
gizarte premia guztietarako
laguntzarik zabalena ematen dihardu,
eta osakuntza arloan laguntasunik jatorrena.

Zeure dirua gordetzeko:

Caja de Ahorros Vizcaina

Bulego nagusia:

Plaza de España Bilbo
Tel. 243600 - 211.290

Hiriburuan 17 agentzia

Probintziako herri nagusietan
75 ordezkari-tza

Madriko agentzia:

I.C.C.A. Alcalá, 27
Tel. 2214995

Euskal Liburu Azoka Gasteizen

Gasteizen eta laugarren aldiz, Iradier elkarteak Euskal Liburu eta Diskoen azoka antolatu zuen, iragan abenduaren 22, 23, 24 eta 25ean.

Egunak ezin hobeak, edozenbat* gauza erosteko. Baina, halaz ere, abenduko euri- eta haizepean, ixil ixilik egin zen azoka hau. Zergatik diodan hau?

Dirudienez, Gasteiztik kanpoko inor ez zen azoka horretaz ohartu ere. Ezin gaitzezke harro, ez horixe, hara joandako jendetzaz. Izan ere, jendea nekez eta oso urri biltzen zen areto* hartara. Zergatik ote? Beharbada, egun haietako gertakariak jendea beldur erazi zuelako? Propaganda guti egin zelako?

—Zer jende klase etorri zen gehien? —galdetu nion antolatzaile bati.

—Ohiko* jendea, betikoa.

—Nola betikoa?

—Hara! Gure ezagunak, dantza taldeetakoak, euskaldun berriak eta euskaltzaleak. Horietarik ziren gutiz* gehienak. Hortik kanpora oso gutti.

—Konparatu nahi zenuke aurtengo azoka ihazkoa-ekin?

—Berdintsua izan da. Gutti gorabehera berdina saldu da.

—Zer saldu da gehien, diskoak ala liburuak?

—Zalantzarik gabe, diskoak askoz gehiago saldu dira. Eta ulergarria da nonbait, hori horrela gertatzea. Liburuak, euskaraz dakitenentzako bakarrik dira. Diskoak, berriz, edonork entzun ditzake. Eta Gasteizen euskaltzale asko bizi da, euskaraz ez dakien arren, euskal gauzak atsegin dituenak. Bestalde, egia esan, euskal kantuez propaganda gehiago egin da euskal liburuez baino.

Baina, antolatzaile honen arrazoinez gainera, beste batzuk* ere aipatu nahi nituzke hemen, eta ez garrantzi gutiagokoak.

Liburuen eskasia, harrigarria izan zen. Editorial etxeek oso liburu gutti bidali zuten. Adibidez, JAKINEk bi baino ez zuen igorri,* LUREk lauzpabost, ETOR eta GEROK ere berdintsu. Eta ez liburu seinalatuenak, gainera. Zergatik gertatu zen hau? Gasteiztarrok ez ote dugu hori baino gehiago merezi?

Editorial etxeek, bestalde, ez ziguten ordezkari bat ere bidali. Horrela, nola informa jendea liburuen gaiaz, tankeraz,* balioaz, eta bestez? Nola zirika* jendea, zerbait eros zezan?

«La Gran Enciclopedia Vasca»k askoz ere zuhurkiago jokatu zuen, eta saldu ere hala egin zuela esan behar. Zergatik ez beste editorialek? Halen liburuen berri eman zezakeen inor agertu ez zelako. Lastimagarria benetan, nigargarria ez esatearren!

Liburutegi askotan hala egiten zela eta, ea zergatik ez zuten deskonturik egiten, galdetu zuen norbaitek. Hala egin balute, askoz liburu gehiago salduko zuketean, segur aski; eta hau dela uste dugu azoken helburuetariko bat.

Ea datorren urterako hobeto antolatzen dugun, Gasteizko hiriak eta Arabak hori baino gehiago merezi baitu. Era berean, dei sutsu bat egiten diegu editorial etxeei, ahalik eta libururik gehien —eta, nola ez, ordezkariaren bat ere— bidal diezaguten.

GASTEIZTAR

diegu, **deutsegu**
diezaguten, **deiskuen**
ditzake, **dalkez**
nion, **neutsan**
zezakeen, **eikean**
zezan, **eian**
ziguten, **euskuen**



Emakume, gizonezko eta umeen jantziak

Oihal, izare eta etxean behar diren
gainerakoak

Bai emakume eta bai gizonezkoentzako
jantzi aukeratuenak, azken
modara eginak

HURI ZAHARRA

“Casco Viejo”

BILBO

Ezker Berriaren hastapenak (2)

Marxismoa atzera* Ilustrazioen tradizioen artean sarerazi behar zen. Eginkizun honekin zera gertatu da: mundu ikuskeraren edo teoria jeneralen formazioan ihardun dutenek (Marcuse-k edo Althusser-ek, adibidez) teoria «irekiak» bururatu dituztela. Ez dena jadanik* ba dakien teoriarik, jakiteari irekita zeudenak baizik. Eta hauentzat, jakitea «burgeseengandik» etortzeko inpossibilitaterik ez dago.

Beraz, zientzietan «burgese/proletari» dualismo metafisiko haren mugamurrua* lurreratuz hasi dira. Gizarte «burgesa» nahiz «sozialista» azpian harrapatzen duen teoria osatu dute. Neomarxistarik gehienak, hala ere, gai konkreturen baten azterketan enplegatu dira, eta izpiritu irekiarekin enplegatu ere, Marxen eksklusibismo itsurik gabe. Eta gauza «burgese» asko (erlijioa, artea, literatura, eta abar) ez zaizkie marxismo ofizialari bezain mardirikagarrri iruditu, inondik ere.

Hori dela eta, neomarxismoa berriz ere benetan kritikiko da: demokraziaren falta salatzen daki, non dagoen behatu* gabe. Ez du «han» ontzat ematen, «hemen» gaizki dagoena. Eta marxista ofizialen eritziak faltsuak iruditzen bazaizkio, burgesen uste faltsuak bezalaxe kritikatzten ditu. Eta ez du kezkarik, dotrina klasikoren batzuk berriro dudatan jartzeko eta berrikusteko.

Neomarxisten bigarren zeregina, marxismoa berriro dialektiko bihurtzea da. Izan* ere, hau gabe, ez legoke neomarxismoaz hitz egiterik: ez legoke, edozein soziologo, filosofo eta azterkari neomarxista ireki, beste edozein soziologo, filosofo edo azterkari ireki ez-marxistarengandik bereizterik.

1920. urteetan, pentsakera dialektikoa indar berezi batez birpizten da (nahiz eta eragipen* zabalik ez duen gerra hotzaren ondorenerarte iritxiko*). Besteren batzuen artean; K. Korsh, Lukács eta Horkheimer-ek eragiten zioten. Ondorengo urteetako Gerra Mundialaren bezperetan, hiru autoreok bide oso diferenteetatik ibili beharko dute, eta desarroilo guztiz diferentea eginen dute hirurok. Gero, marxismo sobietar ofiziala establitu eta establizatu arau,* ahantzi* samarturik geldituko dira. 1960. azken urteetan, hala ere, pizkunde harrigarri bat ezagutuko dute hirurek. Neomarxistek eta estudianteen erreboltek hiru haien asmoak eta ikuskera biziberritu baitituzte. Haien obren berrargitalpenak eta itzulpenak eurrez* ugaltu dira.

KORSCH ezkertiar radikal-demokratiko bilakatu* zen, anarkismo tankera* pixka batekin. Bere esperantzak Espainian jarrita zeduzkan, CNTean guztiz bereziki. Bai Lenin eta bai sozial demokraziaren (Kautsky-ren) kritikarik gogorrenak berak utzi dizkigu. Marx bera kritikatzten ere ez zen lotsatzen. Iraultza guztiz radikal bat nahi zuen, aginpide guztia oso osorik eta inmediateki herriaren eskutan jarriko zuen iraultza bat. Baina, munduak urte haietan hartzen zuen itxurarekin, azkenerako, egiazko iraultza komunistarik egin zitekeelako esperantza galdu zuen. Marxismoa hartarako inspirazio egokia izan zitekeelako esperantza ere galdu zuen (sozial demokraziaren eta komunismoaren joko ikusirik). Eta etsiak* edo hartu zuen, apika.* Ez zitzaion iruditzen, berak bilatzen zuen mundu berrirako bidea, marxismoak ireki zezakeenik: iraultzaren amarez marxismoa abandonatu duenaren kasu bakana* da.

LUKACS, nazismoari ihesi, eta oroz* gaintetik nazismoa burrukatuz, ortodoxia marxistari errenditu zitzaion, Stalinen manupean* jarriz. Baina, une berean, ortodoxia-

rekin egokitu ezinezko filosofia eraikitzen zuen: Mundu Gerraren ondorengo urteetan ongi agertu da hori, Lukács-en filosofia fruituak ematen hasi denean. Ortodoxiaren kritikorik ezagunenetakoa eta eraginkorrenetakoa dugu berau.

Hirugarrena, Max HORKHEIMER, ez zen beste biak bezain zuzenki eta sutsuki egunorokotasun politikoan —alderdi politikan— sartu. Hau ere nazismoaren aurkako burrukari arimaz eta gorputzez lotu zitzaion. Baina bere erara. Eta era hau beste baina baino distantziatuagoa zen. Ez bigunagoa, baina bai mantsoago, hotzagoa. Akademiakoagoa, beharbada. Max Horkheimer, burrukaren erdian ere, berez zèn huraxe* gelditzen zen: filosofo kritikiko zorrotz bat eta zientifiko bat. Gainera, ez zuen sinesten, mundu honetan «mundu zoriontsurik» lor daitekeenik, eta besteon grina* berorik ere ez zuen, aldakuntzak predikatzekoan, edo gaitzak salatzerakoan. Kritikko bat baitzen, ez profeta amorratu bat.

Neomarxistok marxismo ofizialaren kontra erreakzionatzen zutela esaten badut ere, ezin pentsa liteke, 1920. urteetan geroago bezalako marxismo ofizialik zegoenik. Tankera askotako marxismoak zeuden oraindik, geroago Stalinek marxismo bakarra (ortodoxia) finkatu arte.

Lenini buruz marxismo biziki kontrario eta kritikiko bat Rosa Luxemburg-ena zen; eta Stalinek taxutu zuen marxismotik biziki aldaratzen* zèn beste bat, A. Gramscirena. Hauek biok, ofizialtasunaren barruan, denboraldi batez eragipenik* gabe egon badira ere, orain berriro inportantzia irabazi dute, eta, Alderdi Komunisten barruan bertan bezala ezker berrietan ere, eragile bortitza* ari dira gertatzen.

Ofizialtasunetik kanpora utzitako «komunista ezker-tiarrek» (Estatua suntsitu* eta gizartea komuna-sisteman eratzearen aldekoek, herri demokrazia totalaren aldekoek, beraz) trotskistek, eta beste zenbait joerak ere, ezker berrien hastapenetan* ba zuten zerikusirik.

Neomarxistek, hain zuzen irekiak izateagatixek, ez dute kezkarik, «kondenaturiko» marxistak, bedeinkatuak bezain gustura irakurtzeko eta haietaz baliatzeko.

JOXE AZURMENDI

dizkigu, **deuskuz**
zaizkie, **jakez**
zaizkio, **jakoz**
zeduzkan (zeuzkan), **eukazan**

zeuden, **egozen**
zezakeen, **eikean**
zioten, **eutsoen**
zitzaion, **jakon**

ELAIS ALAI
YURRE

DANTZATOKI GOXOA Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

SOINU KOADROFONIKOA

AMA & LUR
KAFETEGI RESTAURANTA

ZERGAK

Estatuak, dakigunez, gero eta gastu haundiagoak ditu. Munduko Estatu guztietan gertatzen da berdin. USAn, adibidez, Estatua da, industriak duen eroslerik onena; eta nazioaren bizitza ekonomikoan hura* agertzen da aitzindarien* artean.

Gastu hauen ordainbidea zergak dira. Zerga hauk* bi eraketa dira: direktuak eta indirektuak. Direktuak, pertsonen zuzenki ezartzen zaizkienak dira, eta indirektuak, produktuei ezarritakoak. Zerga indirektuak, erosleak —kontsumitzaileak— ordaintzen ditu: azken finean, herri xeheak.

Bestalde, Estatu bateko fiskal eraketa aurreratuago, hango zerga direktuak ere gehiago. Zerga hauk, kapitala duten pertsonen dagozkie.

Espainiako zerga araudiaren berezitasun bat, inpostu indirektuetan oinharritzea da, % 64era iritxirik.*

Orain, langileriarri ezarri zaion IRTP edo «impuesto de rendimiento de trabajo personal» delakoa zerga direktu bat dela kontutan hartzen badugu, argi eta garbi ikusiko dugu zein den Espainiako zergaketari eusten* dion zutabea.* Herria.

Irabaziei ezartzen zaizkien zergetarik, erraz baino errazago itzur* daiteke, bi kontabilitate erabiliz. Uste denez, legeak mautzen* duenetik % 30 edo ordaintzen da bakarrik.

Hau honela izanik, ez da harritzekoa, herbesteko kapitalistentzat Espainiako Estatua «paradisu fiskal bat» dela entzutea.

Baina gehienbat herriagandik ateratzen den diruketa hori nola banatzen da?

Argitaratu berria da 1974.era Estatuaren presupostu orokorra.* Ez dakigu, probintziarik probintzia nola dagoen banatuta. Ba dakigu, ordea, ihazkoaren aldean batez beste % 16,3 gehitu dela. Hona hemen gehitze horren zenbait xehetasun:

Hezkuntza,* osasuna, etxagintza, pentsioak	%
Aministrazioa	13,7
Zerbitzu orokorrak	32,9
Defentsa	23,7
	26,4

Atera dezakegun ondorioa, hau da: Presupostu honek ez duela helburu sozialik asko; bai, ordea, Estatuaren aparatua indartzea. Hala eta guztiz ere, zergen xederik* garrantzitsuenaberastasunaren partitzea omen da. Fede sendoa behar da gero!

ARATZ

dezakegu, daiegu
dio, deutso

zaio, jako
zaizkie, jakez



Banku batetik espero duzun baino askoz gehiago eskaintzen dizugu.

Hala ere, oraindik gutti dela uste dugu.

Hona hemen, emakumearentzat eskaintzen dugun zenbait zerbitzu. Haietarik batzuk ez dira berriak. Baina denek dute berezitasun bat: emakumea haintzat hartzen dutela.

Hau kontuan harturik, Banku barruan bertan bulego batzuk muntatu ditugu, neskak espezializatu batzuen ardurapean daudenak.

Eta dena egin dugu, gure gizartean emakumeak lortu duen aurreramenak harrotzen gaituelako. Honela, geure oneritzia eta miropena erakusten diegu bai etxeko andreei eta bai emakume soilei.

Gaurko emakumeak ba daki zer nahi duen eta bere gurariak nola lor ditzakeen. Zerbitzu hauen bidez geure eskerrona erakutsi nahi diogu, eta geure laguntza eskaini.



Cheques Regalo



Cheques de Viajero



Cuentas Corrientes



Domiciliación de Recibos



Libretas de Ahorro



Atención a la Mujer



Ciros y Transferencias



Operaciones de Crédito



Banco de la Mujer

Banco de Bilbao Banku honek emakumearen eskubideak zaintzen ditu



Biritxiak

—Joxe, hire emazteak biritxiak egin dituela jakin ziat. Zer? Gauean nigar handiak aterako dituzte bien artean, ez da?

—Ez pentsa! Bietako batek egiten dituen deihadarren, bestearenak entzun ere ez zitiagu egiten.

Horregatik

—Aizu*! Zer dela eta ari da boz goraz hizketan gizon hura*?

—Bere buruarekin ari da hizketan, eta gaixoa gorra baino gorragoa da.

Malizia haundiegi!

Behin batean neska erizain* batek medikuari honela esan omen zion:

—Aizazu,* jauna! Aspaldi honetan erradiographiak egiten ari naiz, eta, entzun dudanez, X izpiak oso kaltegarriak dira emakumezkoontzat. Antzutasuna eta umerik ezin egitea omen dakarte. Ez duzua* uste, niri ere holarik gerta dakidakeela?

—Ez hadi horretaz batere fida! Ez hadi horretaz batere fida! —erantzun zion medikuak irribarre maliziatu batez.

Ongi gaztigatu beharra

Ba ote da gauza aspergarriagorik, soro* batetan sator bat baino? Ez behintzat, Pelloren eritziz. Egunean* egunean aurkitzen zituen hor han hemen lur pila berriak.

—Sator zikin madarikatua! Honek ezin zezazek luza-roago irauin —esan zuen goiz batez amorruez; eta, haitzurra eskuan harturik, hamaikak inguruan soro hegalean gelditu zen zain, satorra noiz agertuko.

Halako batetan, drak, drak! horra non hasten den jutzen. Ixilka-mixilka haraino joan eta haitzur kolpe batez, dzapa! satorra lurpetik ateratzen du, bizi bizirik gainera. Andreari daramaio,* beronek piztia gaizkin hura ikus dezan.

—Bai haundia dela! —diotso andreak—. Oraintxe hil behar duk, Pello. Bota lurrera eta zapal ezak oinpean.

—Ez horixe! —Pellok erantzun—. Honentzat hori gutiegi izango luken. Ba al dakin, zer egingo diodan gaizkin madarikatu honi? Bizirik lurperatu!

Ezetz igar*!

—Zerekin beteko huke pitxer bat, Txomintxu, hutsik baino pisu gutiago eduki lezan?

—Hutsik baino pisu gutiago eduki lezan?

—Bai.

—Ez diakiat, ba.

—Zuloz, txotxo, zuloz.

—Ederki! Baina ea orain igartzen didaan hik niri. Edukiz gero, mundu guztiak bilatzen zik gauza hori; baina edukitzen ez denean, ez zik nahi izaten ez bilatzen inork.

—Ui! Hori bai gaitza! Osasuna ez da izango, ez da?

—Ez, ez! Ez duk osasuna. Ematen*?

—Bai, uko* egiten ziat.

—Arkakusoa,* txo, arkakusoa!

dakidake, daitekit
dezan, daian
diakiat, dakit
didak, deustak
diot, deustat
duk, da
ezak, eik
huke, heuke



lezan, leian
luden, litzateke
zezake, dezake (daike)
ziat, dut
zik, du
zion, eutson
zitiagu, ditugu



AI ENE! NORA GOAZ?
ERRESPETURIK
ERE EZ!



GURUTZEGRAMA (33)



Zer egin nahi duzu tximeleta horiekin?

EUSKAL SALDA

B	I	D	K	A	R	G	I	T	Z
E	A	U	O	N	D	A	R	O	A
G	E	R	N	I	K	A	I	O	L
O	T	A	A	G	A	R	R	I	E
N	I	N	A	K	R	R	U	R	K
I	M	G	R	O	A	M	I	U	E
O	L	O	L	D	O	L	A	D	I
R	O	E	N	G	A	R	D	I	T
A	I	O	B	E	R	M	E	O	I
Z	K	O	B	E	R	R	I	T	O

Ezker aldetik eskuin aldera: 1. Binaka.—2. Izan bedi (alderantziz).—3. Doi doi, ozta ozta.—4. Kontsonantea. Lehenbizi. Kontsonantea.—5. Gaur. Kontsonantea. Lagun. 6. Ukan aditzaren forma (alderantziz). Bizi ez direnak.—7. Bokala. Egunean egunean. Bokala.—8. Emeki, geldiro.—9. Oraindik.—10. Zerbitzaritza, esklabutasuna.

Goitik behera: 1. Zentzu (artikuluarekin).—2. Izenorde pertsonala. Kontsonantea.—3. Laburra ez dena. Bokala.—4. Kontsonantea. Egingo (alderantziz). Kontsonantea. 5. Eskolatu (alderantziz). Zuhaitz mota.—6. Nuke (toketaz). Algeriako hiria (alderantziz).—7. Neska batentzat, beronen aitaren semea (alderantziz). Hirugarren.—8. Kontsonantea. Ahari irendua. Kontsonantea.—9. Pisu neurria. Kontsonantea.—10. Izan aditzaren forma. Bokala.—11. Ahuntzaren arra (alderantziz).

Goiko koadro horretan Bizkaiko zortzi herriren izenak daude, zuzenean jarrita. Aurkituko ote dituzu? Kontuan hartu behar duzu, goitik behera, behetik gora, eskuinetatik ezkerretara, ezkerretatik eskuinetara, edo eta zeharretara, diagonalean ere, egon daitezkeela, bai eta elkarren artean gurutzaturik ere.



HIEROGLYPHIKOAREN ERANTZUNA:

Bilduma bat

EUSKAL SILDAREN ERANTZUNAK:

Barakaldo, Ea. Ondarroa, Gernika, Durango, Leketio, Bermeo, Elorrio,

AZALPENA. Ezker aldetik eskuin aldera: 1. Binan.—2. Biz.—3. Nekez.—4. S. Lehenik. R.—5. Egun. K. Kide.—6. Zizun. Hilak.—7. A. Egunerero. A.—8. Emaro.—9. Are.—10. Morrontza

Goitik behera: 1. Sena.—2. Gu. M.—3. Luze. O.—4. B. Eginen. R.—5. Hezi. Zumar.—6. Nikek. Oran.—7. Neba. Heren.—8. N. Zikiro. T.—9. Kilo. Z.—10. Da. A.—11. Aker.

HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

Ale honetan izartto batekin agertzen diren berbak

ABURU, eritzi.
ADIN, edade.
ADINA, aina, beste, bezainbeste, bezainbat.
AGIAN, beharbada, nonbait.
AHANTZI, ahantzu, ahaztu.
AHANTZI SAMARTU, apur (samar) bat ahantzi.
AITZINDARI, delantero.
AITZITIK, al contrario.
AIZAZU, adi ezazu, adi eizu.
AIZU, adi ezazu, adi eizu.
ALDARRIKATZE, proclamar.
ALDARATZE, aldentze, alejarse, s'élouigner.
ALEGIA, halegia (hala+egia), a saber, es decir, esto es.
ANTZA, dirudienez.
ANTZA DENEZ, antza denetik, dirudienez.
ANTZOKI, teatro toki.
APIKA, tal vez, acaso, peut-être.
ARABERA, arauera, según, conforme.
ARAU, según, conforme, a medida que.
ARAUERA, arabera, según conforme.
ARE, oraindik, aún, encore.
AREAGO, oraindik gehiago.
ARETO, sala, salón.
ARGUDIO, argumento.
ARKAKUSO, kukuso, ardi, pulga, puce.
ARRUNT, común, corriente, ordinario.
ASKI, nahiko.
ATERATZEARREN, ateratzeagatik.
ATERGABE, etengabe, incesantemente.
ATXIKITZE, adherirse.
ATXILOTU, prendido, detenido, arrestado.
ATZERA, berriro.

BA, bada, pues.
BAHITU, secuestrado, requisado.
BAILIREN, como si fuesen.
BAKAN, raro.
BARIK, gabe, en vez de, au lieu de.
BARNEGITURA, estructura interna.
BATIK BAT, batez ere, bereziki.
BATTU, uno solito.
BATZUK, zenbait. (Batzuek aktibo, batzuk pasibo).
BEHATU, begiratu.
BEHARRIZAN, behar, necesidad.
BEHERE, parte inferior.
BEHIALA, behinola.
BEJONDIGULA, onhorabuena. (Bide on [Jainkoak] digula).
BELAUNALDI, generación.
BELUMENDU, tardanza, retard.
BENE BENETAN, zin zinez.
BERE BER, bere buru, independiente.
BEREBIZIKO, aparteko, aproposko.
BERRIKI, berrikitik, recientemente.
BILAKATU, bihurtu.
BIZ, izan bedi.
BORTITZ, fuerte.
BURKIDE, camarada.
BURUTU, realizado, llevado a término.

DAGOENeko, dagoen orduko.
DAKIEGU, dakigu nonbait.
DARAKUSKIGUTE, erakusten digute (deuskue).
DARAMAIO, daroatso, eramaten dio (deutso).
DATZA, yace, está, consiste. (Etzan aditzaren forma).
DERRIGORREZ, baitezpada.
DEUS, ezer.
DIODAN, esan dezadan (daidan).
DITUZKETE, dituzte nonbait.
DUKE, du nonbait.
DUKETE, dute nonbait.
DUZUA, al duzu?

EDIREN, idoro, aurkitu.
EZOZENBAT, zernahi, zenbatnahi, zenbatgura.
EGUN, gaur.
EGUNEAN EGUNEAN, egunero.
EI, omen.
EITE, forma.
EKAIN, junio.
EKIALDE, eguzki alde, oriente, Este.
EMATE, amor emate, desistir.
ENGAIATU, comprometido, engagé.
ERABAT, gutziz, zeharo.
ERAGIPEN, influencia.

ERAKUNDE, organismo, organización, entidad.
ERAUZI, jauz erazi, arrancado, hecho saltar.
EMATEN DU, iduri du.
ERDIETSI, lortu.
ERDITSU, casi la mitad.
ERIZAIN, enfermero.
EROATE, eramate.
ESATERAKO, esate baterako, por ejemplo.
ESKUALDE, comarca, región.
ETSI, desesperanza.
EURREZ, abundantemente, profusamente. (Euskara batuan, Bizkaiko eurrez erabili behar genuke, eta ez erruz, azken hitz honek beste gauza bat ere adierazten du eta).
EUSTE, apoyar, sostener.
EZEZIK, no solamente.
EZKUTU, escudo, ecu.

FROGATZE, probar, demostrar.
FUNTS, fondo, sustancia, base.
GAINDI, zehar.
GAURGERO, en adelante, désormais.
GISA, bezala.
GORABEHERA, a pesar, malgré.
GRINA, pasión, apasionamiento.
GUTIZ GEHIENAK, ia denak.
GUTTIESTE, subestimar.

HAINTZAKOTZAK, haintzat, en consideración.
HAINTZAT, haintzakotzat, en consideración.
HALABER, igualmente, así mismo.
HALEGIA (hala+egia), a saber, es decir, esto es.
HANARTEAN, mientras tanto.
HASERA, haste, hastapen.
HASTAPEN, haste, hasera, comienzo.
HAUK, honeek. (Hauek aktibo, hauk pasibo).
HEGADA, hegaldatze, vuelo.
HEZKUNTZA, educación.
HIGIDURA, mugimendu.
HOBETSI, preferido.
HORIK, hoik horreek. (Horiek, aktibo, horik pasibo).
HOTS, a saber, es decir, esto es.
HURA, ha.
HURAXE, haxe.

IDAZKARI, sekretari.
IGAR, adivinar, devinar.
IGORRI, bidali.
IKERKUNTZA, azentuaz, la investigación.
ILUNSKO, iluntxo.
IRITXI, heldu; lortu, erdietsi.
IRIXTE, heltze, ailegatze.
IRTEN, urten, atera, jalgi.
ISLA, reflejar. (ISLATU, reflejado).
ISLADA, reflexión.
ISTORIO, narración.
ITAUNKETA, interrogatorio.
ITSUSKI, oso, guztiz, lar, sobera, muy, excesivamente, desmesuradamente.
ITZUR, escapar.
IZAN ERE, en efecto.
IZARI, neurri. (Maiz* erabiltzen da iparraldean).

JADANIK, ya.
JARAMON, kasu.
JARRERA, actitud, postura.
JEINU, habilidad.
JEZARRI, eseri.

KARRIKA, kale.
KASU, adibidez, por ejemplo.
KORTSIKA, Korsika, Córcega.
KUTSADURA, contaminación.

LAKET IZAN, gustar, agradar.
LANGREBA, huelga.
LAU mila Celsius gradu (4000°C). Zientzi arloan agertzen diren beste adierazgarri askoren antzera eta mendealdeko hizkuntza guztietan egiten den bezala, gradutasunaren adierazgarria —idaztean— zenbakiaren ondoan jartzen du J. R. Etxebarriak, irakurtzean alderantziz egiten arren).

LAUN, plano.
LEITZA, Nafarroako Leiza.
LEKUKO, testigu.
LENGUAI, lenguaie.
LLERDA, Lérida.
LURRUN, vapor.

MAIZ, sarri, sarritan.
MALURUS, zorigaiztoko.
MANATZE, agintze.
MANU, agindu.
MANUPEAN, agindupean.
MEN, poder, jurisdicción, autoridad. Hitz hau, oso aberatsa delarik, gehiago erabili behar genuke hegoaldekook (ikus Lhanderen hiztegia).
MEZU, mensaje.
MOKOZ MOKO, frente a frente.
MOLDATZEN ZUKETEN, moldatzen bidezuten, probablemente formaban.
MOTRIL, Granada aldeko herria.
MUGAMURRU, muro-frontera.
MUKURU, colmo, tope. Neurriaren mukurutzea (Axular). Ene ustez, euskara batuan ez litzateke mukurru erabili behar, mukurru baizik.

NABARI, evidente, notorio.
NABARIRO, públicamente, a la vista de todos.
NHI, nazional herriko iraultzaile.
NOLATSUKO, nolako guti gorabehera.

OHIKO, habitual.
OHOSTU, ebatsi, robado.
ORAINOKOAN, orain artekoan.
ORO, guzti.

OROKOR, general.
OROZ GAINETIK, por encima de todo.
OSTERANTZEKO, distinto, diverso.
OSTIRALE, bariku.
OZTA, doi.

PAILAZO, payaso, bouffon.
PRAKTIKA, azentuaz, la práctica.

SORO, solo.
SUAK, azentuaz, el fuego; azenturik gabe, los fuegos.
SUEDIAR, sueco.
SUNTSITU, hondatu.

TANKERA, estilo.
TEBEO, comic.

UDALETXE, herriko etxe, casa consistorial.
UKAN, izan. (Ukan aktibo, izan pasibo).
UKO EGIN, renunciar.
URRATS, pauso.
URRUNSKO, urruntxo.
URTARRIL, enero, janvier.
URTERAZ, hacer derretir, faire fondre.

XAFLA, chapa, lame.
XEDE, helburu, asmo.

ZEREN (ETA), ze, pues.
ZIRIKA, kitzika.
ZIRATEKEEN, ziren nonbait.
ZUTABE, pilar, columna.
ZUZPERTU, reavivado.

HITZAK ETA ESALDIAK

BESTE ALDIZKARIETAN AGERIAK (*)

Ideen mailako xehekeria bat, ideien mailako hanka sartze bat, ideien mailan esaldi ilunsko* bat, eta aski dute super-intelektualok: errotik erazuzi* behar gizona edo emakumea, osotara ukatu behar haren lan osoa. LARRESORO («Zeruko Argia»).

Bihozkadak eta sasi-azterketak alde batera utziz gero, hau esango nuke: A jokabidea goian daudenei ongi badoakie, A hori berori gaizki joango zaiela behean* daudenei. LARRESORO («Zeruko Argia»).

Nafarroa oraingo egunean, azken mende erdiak* hona, euskaldun probintzia bat bezala dadukagu. NARBAITZ («Gure Herria»).

Ordukotz Nafarroako jendalde horiek moldatzen* zuketena batasun bat. NARBAITZ («Gure Herria»).

Tudelako mairuei laketa* zitzaizen ahal bezainbat beren* ber bizitza. NARBAITZ («Gure Herria»).

Erran daiteke, aski garbi ikusten dugula nolatsukoak* izan diren Nafarroako erreinuaren lehen urratsak. NARBAITZ («Gure Herria»).

Nafarrak eta Asturianok ikusiko dira geroxeago elkarren alde gudu, baina ez bata bestearren meneko.* NARBAITZ («Gure Herria»).

Ikastaldi hartara, gehienak Euskal Herritik etorri ziren, bizpalau Parisetik, Kataluniatik batto,* Japoniatik beste bat. MENDIBEHERE («Zabal»).

Guk, hasteko, egia hori bere izarian* behar ukan dugu ezarri. MENDIBEHERE («Zabal»).

Oraindino ikastaldia itsuski* garesti zaio ikasle bakoitzari. MENDIBEHERE («Zabal»).

Umeek sei urtetarik hamabitara dute jeinurik* hobereana, mintzaira ikasteko. UZTARPEKO («Zabal»).

(*) Behin baino gehiagotan, euskara batuaren amorearren eta irakurlearen faboretan, aldatu egiten ditut pixka bat hitz eta esaldiok.

EGUZKITIKO ENERGIA

Petrolioaren krisiak, lurraren energi iturrien azterketa bat egitera bultzatu gaitu. Hauen artean, eta gerora begira ukan* lezakeen garrantziagatik, ez dugu eguzkia ahantzi* behar. Lehenago ere aipatu ukan dugu eguzkitiko energia, baina aipatzetik ez dugu aurreranzko urratsik* eman. Oraingo honetan, energia honen erabiltzearen historia labur bat eginen dugu, egungo egoera ere ikusirik.

Ez dut uste, eguzkiak izugarritzko energia bidaltzen digula inork ukatuko duenik. Hara: Munduan dauden elektrozentralak ematen duten elektrizitateaz, ozta* ozta argitzen ditugu herriko kaleak eta etxeko bazterrak, gaua heltzen denean; eta mendi guztiak ilunetan gelditzen dira. Hala ere, egunsentian argitasunez betetzen dira zokondo guztiak. Eta eguzkitiko argiaren eta elektrargiaren artean, ba dago, gero, alderik!

HISTORIA APUR BAT. ARKHIMEDES

Eguzkitiko energiaren erabiltzea gauza berria dela uste dute askok; baina ez dute horrela pentsatuko, ondoko gertakari hau entzun eta gero.

Istori* batek dioenez, erromanoak, hiria konkistatzeko asmoz, Sirakusa aurrera heldu zirenean, haien guduntziak suá* hartzen hasi ziren; eta, hau ikusirik, erromanoek atzerantz egin zuten. **Mirariaren azalpena**, hauxe da. Mendi tontortto batetan zegoen Sirakusako gudari talde batek, kobrezko ezku* ispi-latuen bitartez, guduntzietara isla* erazten zituen eguzkitiko izpiak, Arkhimedesen manuari* jarraituz; eta, izpien kontzentratzeaz, berotu egiten ziren untziok, erretzeraino.

Ez dakigu, eta beharbada ez dugu inoiz jakinen, aurreko ipuin horretan kontatzen dena, egiazkoa denentz. Hala ere, gertakari horren posibilitatea frogatzeko,* greziar gazte batek esperimentu bat egin du oraintsu Sirakusa inguruan. Arkhimedesen denboran ezagutzen ziren elementuez baliaturik, aipaturikako gertakaria posible dela frogatu ukan du.

Guk ere inoiz, umetan, paperen bat sutan jarri ukan dugu, lupa baten laguntzaz izpiak puntu batetan kontzentratuz. Arkhimedesen denboran ez zegoen oraindik luparik, baina bai asmamen zorrotzeko gizonik, halafede!

XIX. MENDEA

Erabili ez den arren (edo guti behintzat), aspaldidanik ezagutzen du gizonak, nola transforma daitekeen izpien energia, elektrizitatea lortzeko. 1834. urtean aurkitu ziren termopilak, eta 1876.ean fotopilak. Hala ere, 1954. urterarte ez zen hasi haien produkzio industriala. Askok diotenez, produkzioa garestiegia zelako gertatu zen belumendu* hori; baina isildu egiten da, hanartean* metodo berrien ikerkuntzari ez zaiola batere indarrik eman. Nolakoa litzateke egungo* egoera, bitarteko urte pilo horretan, ikerkuntzá* energia honen azterbidetik zuzendua izan balitz? Ez dugu erantzunik asmatuko, baina egungo egoerá hobe litzatekeela, ez dugu dudarik egiten.

ZENBAIT METODO BEREZI XX. MENDEAN

Azkeneko hamar urte honetan, argi izpien erabiltze modu berri batzuk* asmatu izan dira. Bi aipatuko ditut.

Lehenik, bakerako baliatu izan den bat azalduko dut, frantsesek egina. Etxe bati paraboloidetako* orma bat egin zioten, eta orma hori ispilu parabolikoez bete zuten. Eguzkitik datozen izpiak orma horretara beti direktzio batez abia erazteko, eguzkiaren mugimenduari jarraitzen zitzaizkion ispilu laun* batzuk jarri zituzten. Honela, bi islada* jasan ondoren, izpi

guztiak ispilu launetara heltzen dira, hauetatik ispilu parabolikotara, eta hauetatik foko bakar batetara. Puntu honetan, fokoan halegia,* izpien kontzentratzeaz 4000°C (lau* mila Celsius gradu) inguruko tenperatura lortzen da. Honela lortutako «eguzki labean», ezagutzen diren gorputz guztiak urteraz* daitzke, surik gabe; eta hainbat esperimentu egiten dira bertan.

Printzipio berean oinarriturik, amerikanoek holako eguzki labe bat egin dute, izpien kontzentratze handi baten bidez guda-gurdien erresistentzia frogatzeko,* Zer gertatu zen? Guda-gurdien altzeiruzko xafila* lodiak ere urtu egin ziren, paperezkoak bailiren.* Hala ere, bi milurtetan aurreratu zitzairen Arkhimedes, beronek esperimentu bera egin baitzuen erromanoen kontrako gerran.

NOLA ERABIL DAITEKEEN ENERGIA HAU

Ispiluetan islatu* egiten dira izpiak, baina ez da berdin gertatzen gorputz beltzetan. Gorputz beltzek irentsi egiten dituzte, heltzen zaizkien izpiak; eta, irenstean, izpien energia bereganatzen dutenez, berotu egiten dira. Gorputz beltzaren inguruan, bero hori gordetzeko zerbait jartzen ez badugu, airearen konbekzioaren kausaz hoztu egiten da gorputza, inguruko tenperatura hartzeraino. Baina bero hori gordetzeko zerbait jarritz gero, oso berotzen da gorputz beltza.

Egun* dauden tresna arrunt* batzuek baliaturik, zazpiehun gradutako tenperatura lor daiteke gorputz beltzetan, eguzkitan jarri eta besterik gabe. Ba daude zenbait metodo prestaturik, berotze hori oraindik ere gehitzeko. Tenperatura hori lorturik, ez da batere zaila, gorputz beltzetara heltzen den energia, beste edozein energi modutara transformatzea.

Beste modu batez ere erabil daiteke eguzkitiko energia gure onerako. Geroago eta gehiago dira, delako energiaren berotzen diren etxeak.

Bukatzeko, beste puntu bat aipatu gura nuke. Energi iturri honek ez du inolako kutsadurarik* sortzen; eta hau kontutan hartzekoa da, geroago eta kutsatzenago ari den gizarte honetan.

Eguzkiak ehun watt energia bidaltzen digu metro koadratuko. Zer izen merezi ote dugu, watt hauk* guztiok alferrik galtzen baditugu? Ekologoen eraginez, hainbat jakintsu hasi da, bide berri hau urratzen; eta segur gaude, haien ikertze lanek beren fruitua emanen dutela.

J. R. ETXEBARRIA

daude, **dagoz**
digu, **deusku**
gaude, **gagoz**
lezake, **leike**

zaio, **jako**
zaizkie, **jakez**
zitzaien, **jaken**
zitzaizkion, **jakozan**

Batasun lanetan gabiltzanoi, maiz jaurtikitzen digute zirtu hau: Zuek euskara, hizkuntza hila balitz bezala jotzen duzue; hizkuntza hilak tratatzen diren bezala tratatzen duzue.

Enc ihardespna objezio horri hauxe da: Munduan diren hizkera batu guztiak, literatur hizkerak, beren izatez eta egitez, hizkuntza hilak dira, gogortuak, aldakaitz bihurtuak, hormatuak, nahi baduzue. Eta holakoxeak behar dute izan, gainera, beren egitekoa egingo baldin badute. Orduan, eta orduan bakarrik, dira gai, eskola bidez irakatsiak eta zabalduak izateko, idatzizko zereginetan erabiliak izateko, eta abar. Eta hizkera batu hori, hormatu, hil eta gogortu hori, etsai ez, baina lagun eta adiskide izan ohi da hizkuntza biziarekin. Biak, hizkuntza mintzatua eta idatzia, anaitasun ederrean bizi ohi dira bata bestearen ondoan, elkar lagunduz, bata bestea aberastuz.

Luis VILLASANTE («Gure Herria»)